

FITXA: 268 – 2026-2027 aldian euskal kultura-ondare immateriala babesteko lanak egiteko laguntzak.

Nori zuzendua:

1.- 2. oinarrian adierazitako 1. lerroko jardueretarako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte pertsona fisikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen eta Fundazioen Erregistroetan erregistratutako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta tokiko euskal administrazio publikoek, udalek, toki-entitate txikiek, udalen elkarteek edo antzekoek. Era berean, pertsona juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira, baldin eta estatutuetan xede edo helburu sozial gisa badute kultura-ondareari lotutako jarduerak garatzea.

2.- 2. oinarrian adierazitako 2. lerroko jardueretarako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen eta Fundazioen Erregistroetan erregistratutako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta tokiko euskal administrazio publikoek, udalek, toki-entitate txikiek, udalen elkarteek edo antzekoek, e, f eta g idatz-zatietan deskribatutako jarduerak izan ezik, horietan tokiko euskal administrazio publikoek, udalek, toki-entitate txikiek, udalen elkarteek edo antzekoek baino ezin izango baitute parte hartu.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/09/01
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/1113208

Erreferentziazko araudia: AGINDUA, 2026ko uztailaren 22ekoa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/09/2603751e.pdf>

Eragin eremuak: Kultur ondarea

Zenbatekoa: 400.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/09/02

Aurkezteko azken eguna: 2026/10/02

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 20.000-40.000 €

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Deialdi honetako laguntzen xedea da EAEko lurralde-eremuan garatzen diren eta euskal kultura-ondare immateriala babesten laguntzen duten proiektuak edo jarduerak gauzatzea, berezko duen ondare materiala barne.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. lerroa: ikerketa, katalogazioa, analisia eta planak.
2. lerroa: kultura-ondare immateriala sortzeko, zabaltzeko eta sustatzeko jarduerak.

Jarduera-ildoak

1. lerroa: ikerketa, katalogazioa, analisia eta planak.

a) Euskal Herriko kultura-adierazpen immaterialen ikerketa-, dokumentazio-, erregistro- eta inbentario-proiektuak, aurretik Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak egin ez baditu. Inbentarioak eginez gero, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak kontratatutako ondare immaterialaren fitxa-ereduarekin lan egingo da, Kultura Ondasun Immaterialen Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioari buruzko apirilaren 29ko 92/2025 Dekretuan (maiatzaren 13ko EHAA, 88. zk.) ezarritako irizpideei jarraituz.

b) Intereseko edozein kultura-ondasun immaterialen egoera aztertzeko eta diagnostikatzeko dokumentuak lantzea, jarraipena eta sustapena ematen lagunduko duten jarduketa-proposamenak eta lehentasunak barne.

c) Kultura-ondasun immaterialak kudeatzeko eta zaintzeko planak landu aurreko dokumentuak egitea.

2. lerroa: kultura-ondare immateriala sortzeko, zabaltzeko eta sustatzeko jarduerak.

a) Lan-eremuan erabilera eta lan-modu tradizional jasangarrien ezagutza suspertzera bideratutako jarduerak garatzea. Barne hartzen da elementu materialak, altzariak eta higiezinak (karobiak, teileriak, txabolak, garbitegiak, txondorrak, erlezaintza, kirikiñausiak, elurtegiak, ogi-labeak, etab.) berreskuratzea, hobetzea eta birgaitzea, jarduera garatzeko beharrezkoa dela justifikatzen bada, jardueraren berezko zati gisa. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da exekuzioaz arduratzen den taldean lan horiek egiteko moduei buruzko jakintza tradizionala duten pertsonak izatea.

b) Komunitate eramaileak ondare immaterialaren adierazpena bera garatzea planteatzen duten proiektuak, ondare hori transmititzen laguntzen dutenak.

Atal honetan tokiko jaiak antolatzen dituzten batzordeak eta entitate publikoak sartzen dira, programazioan, oro har, eta, bereziki, gazteen partaidetzako jarduerak sartzearen alde egiten

dutenak, baldin eta haien diseinuak kontuan hartzen baditu beren kultura-ondare immaterialaren berezko egiteko moduak (lana, aisia, bizitza, etab.), tokiko komunitateko gazteenek ezagutu, transmititu eta balora ditzaten.

c) Euskal jaien irudigintzako elementuak zaharberritzea eta sortzea, bai eta kultura tradizionaleko taldeetako pertsonentzako elementu espezifikoak eskuratzea ere, baldin eta entitate eskatzailearen udalerrian dantzak, musikak, errituak edo jai-ospakizunak edo desagertzeko arrisku larrian daudenak berreskuratzearekin lotuta badaude eta haien egoera egiazta badezakete. Elementuak erosiz gero, EAEko AGBa (Adierazpen Geografiko Babestua) dutenak lehenetsiko dira.

d) Ondare immateriala zaintzen, babesten, zabaltzen eta haren ezagutza hobetzen laguntzen duten jarduerak, hala nola kongresuak, erakusketak, topaketak, tailerrak, programen gidoiak edo irrat-espazioak, dokumentalak eta aldizkako argitalpenak.

e) Toki-entitateek homologatutako ikastetxeetako hezkuntza arautuaren esparruan urteko programazioetan mantentzen dituzten kultura-ondare immateriala sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak.

f) Toki-entitateetatik adierazpen immaterialei buruzko berariazko interpretazio-zentroak sortzea, adierazpen horien berezko eremuari lotutako espazioetan instalatu beharko direnak. Proiektuak idaztea ez da diruz lagunduko, horiek gauzatzeko bermeari lotuta ez badago.

g) Toki-entitateek kultura-ondare immaterialari eta haren historiari lotutako salbuespenezko ekitaldien ospakizunak programatzen dituzten egunetan (pertsonaiei edo pertsona ospetsuei buruzkoak izan ezik), tokiko edo nazioko eragina dutenak, laguntzak eskatu ahal izango dituzte beren programazioaren barruan kultura-ondareari lotuta justifikatzen diren jarduerak garatzeko eta gauzatzeko, hau da:

- 1.- Hiribilduak edo udal-entitateak sortzeko urteurrenak, gutxienez 100 urtekoak diren ospakizunetan baino ez dira lagunduko, betiere gutxienez 25 urteko kadentzia badute.
- 2.- Tokiko komunitateek berek interpretatutako kultura-ondare immaterialeko adierazpenen irudikapenen kasuan, gutxienez bi deialdiren kadentziarekin.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagundu ahal izango dira lana gauzatzetik zuzenean eratorritako gastu guztiak, baldin eta lana justifikatzeko aldia amaitu baino lehen egin badira.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren proiektuek 2026ko ekitaldian hasita egon beharko dute edo bertan hasi beharko dira. Amaitzeko azken eguna 2027ko urriaren 29a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.